

Adierazpen instituzionala, pribatutasunaren eta datu pertsonalak babestearen aldeko kultura sendotzeari buruzkoa

Hitzaurrea

2016ko apirilaren 27an, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO) onartu zen, eta, gaur egun, pertsonen eskubideak errespetatzen dituen gizarte digital baten zutabeetako bat da, bai eta araugintzaren erreferenteetako bat ere, ez Europan bakarrik, baizik eta mundu guztian ere.

Hamarkada honetan, erregelamendua aplikatzea zeharo lagungarria izan da datu pertsonalen babesa benetan lortzeko, informazioaren tratamenduan erantzukizunaren aldeko kultura bultzatzeko, eta teknologiaren eta ekonomiaren garapenean pribatutasuna egiturazko elementu gisa kokatzeko.

Erregelamendua onartu zenetik hamar urte igaro direla, datuak babesteko agintaritzek konpromiso are sendoagoa hartu dute pribatutasunaren babesaren alde, pertsonen duintasunaren funtsezko adierazpena eta oinarrizko eskubidea den aldetik; hain zuzen ere, eskubide gisa, estu-estu lotuta dago nortasunaren garapen askearekin, ingurune digitalen fidagarritasunarekin eta demokratikoki aurreratutako gizarte baten funtzionamendu egokiarekin.

Halaber, agintaritza horiek ondo dakite datuen babesa ez dela eskubide absolutua, eta, alde horretatik, arauak gainbegiratzeko, interpretatzeko eta aplikatzeko irizpide batzuk ezarri behar dituzte, pribatutasunerako eskubidea beste eskubide batzuekin uztartu ahal izateko, proportzionaltasun-printzipioaren pean.

Datuak babesteko agintaritzek, datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak esleitzen dizkien eginkizunak betetzearren, eta ingurune digitalean oinarrizko eskubide eta askatasunak bermatu behar dituzten agintaritza independenteak diren aldetik, beharrezkotzat jotzen dute nabarmentzea lankidetzeta eta koordinazioa garrantzitsuak direla, zenbait erronkari aurre egiteko eraldaketa digitalaren, datuen ekonomia gero eta handiagoaren eta teknologia emergenteen erabilera intentsiboaren ondorioz, teknologia horien artean daudela sistema automatizatuak eta informazio pertsonala masiboki tratatzeko modu berriak.

Datu pertsonalen tratamenduak gero eta konplexuagoak dira, berrikuntza teknologikoa gero eta bizkorrago dabil, eta horrek guztiak zeharkako eragina du gizartean. Bada, horren aurrean erantzun egituratuak eman behar dira: erantzun horien bidez, agintaritza bakoitzaren independentzia guztiz errespetatuz, aurrera egin ahalko da baterako ikuspegi batzuetara, ikuspegi horien jomugak izanik arriskuak prebenitzea, pribatutasunaren kultura sustatzea eta herritarren konfiantza sendotzea, garapen digital legitimoa, segurua eta sozialki onartua erdiesteko.

Testuinguru horretan, adierazpen hau sinatu duten agintaritzek, hamargarren urteurren hori dela eta, adierazpen instituzional hau egiten dute, adierazteko haien borondatea dela lankidetzan aritzea, ezagutza trukitzea eta ekimen erkideak egitea, datuen babeserako araudia modu koherente eta efikaz batean, gizartearentzat ulergarria den modu batean aplikatzen laguntzeko; horretarako, eredu jakin bat erabili behar da, zeinak araudia hala aplikatuko dela bermatuko baitu, pertsonen onerako, interes orokorraren onerako, eta oinarrizko eskubideen errespetuan oinarritutako ekosistema digital bat sendotzeko.

Adierazpena

- I. Datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearen egiturazko balioa berrestea, bereziki ingurune digitaletan
- II. Pribatutasunaren aldeko kultura aktiboki sustatzea eta herritarren konfiantza sendotzea
- III. Araudia errazago betetzeko bidea emango duten neurriak bultzatzea
- IV. Datuak babesteko ordezkariak eta pribatutasunaren arloko profesionalak aintzat hartzea, ahalduntzea eta haien zeregina sendotzea
- V. Talde kalteberei lehentasunezko arreta ematea
- VI. Teknologia emergenteen azterketa prospektiboa egitea
- VII. Agintaritzen jarduketetan efizientzia, lankidetzeta eta koordinazioa hobetzea
- VIII. Sektore publikoak eta judizialak konpromisoak hartzea

I. Datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearen egiturazko balioa berrestea, bereziki ingurune digitaletan

Adierazpen hau sinatu duten agintaritzek berariaz aitortzen dute datu pertsonalen babesa oinarrizko eta zeharkako eskubidea dela, eta, gainera, berebizikoa dela pertsonaren duintasuna benetan babesteko, nortasuna askatasunez garatzeko eta gizarte demokratikoaren funtzionamendua bultzatzeko, bereziki ingurune digitaletan.

II. Pribatutasunaren aldeko kultura aktiboki sustatzea eta herritarren konfiantza sendotzea

Adierazpen hau sinatu duten agintaritzek agerian jartzen dute datu pertsonalen babesaren aldeko kultura esparru guztietan modu aktiboan bultzatzeko konpromisoa dutela.

Helburu horrekin, lehentasunezko jartzen dute komunikazioko eta kontzientziazioko estrategiak diseinatzea eta garatzea, lagungarriak direlakoan gizarteak pribatutasuna funtsezko balio gisa hauteman dezan, eta hori modu positibo, erabilgarri eta ulergarri batean, helburuak direla oinarritzko eskubideen babesa eta berrikuntzaren eta lehiakortasunaren garapen jasangarria.

Orobat uste da herritarrei zuzendutako produktu eta zerbitzuetan datu pertsonalak benetan bermatzea, gardentasunez jardutea eta instituzioen jarduerarekiko konfiantza sendotzea berebiziko elementuak direla herritarren konfiantza jasotzeko.

III. Araudia errazago betetzeko bidea emango duten neurriak bultzatzea

Adierazpen hau sinatu duten agintaritzek aitortzen dute orientabiderako materialak, gidalerroak, gida praktikoak eta datu pertsonalen babesa kudeatzen laguntzeko tresnak prestatzea, zabaltzea eta arduradunen eskueran jartzea tresna efikaza dela araudia errazago betetzeko, bereziki araudi hori baliabide mugatuak dauzkaten entitateek bete behar dutenean, hala nola ETE-ek, ETE txikiek, hirugarren sektoreko entitateek edo udalerrri txikiek bete behar dutenean, edo bereziki konplexuak diren sektoreetan bete behar denean; esaterako, esparru judizialean.

Alde horretatik, kontrol-agintaritza bakoitzaren irizpide-autonomia ezertan galarazi gabe, ziur gaude komunikaziorako, lankidetzarako eta informazioa trukatzeko mekanismoak ezartzea beharrezkoa dela datuen babeserako araudia modu koherente eta eragingarri batean aplikatu ahal izateko, bai eta interpretaziorako irizpide erkideak prestatu eta ezartzeko, araudia aplikatzean aurreikusgarritasuna eta argitasuna sendotze aldera.

IV. Datuak babesteko ordezkariak eta pribatutasunaren arloko profesionalak aintzat hartzea, ahalduntzea eta haien zeregina sendotzea

Adierazpen hau sinatu duten agintaritzek aitortzen dute datuak babesteko ordezkariak eta pribatutasunaren arloko profesionalak berebiziko zeregina betetzen dutela, gakoak baitira araudia praktikan betetzen dela bermatzeko eta datuen babesa antolakundearen ohiko jardunean txertatzeko.

Horregatik, hitzematzen dute jarraitu egingo dutela beren lankidetzaren sareak sendotzen, ezagutza eta jardura erkideak trukatzeko eta elkarrekin jarduteko guneak sustatzen; izan ere, hala, jardunbide egokiak zabalduko dira eta batzuen eta besteen gaitasunak etengabe hobetuko dira.

Halaber, aitortzen dute datuak babesteko ordezkariak eta pribatutasunaren arloko profesionalak funtsezko zeregina betetzen dutela kontrol-agintaritzekiko mintzakide gisa, bai eta arriskuei aurrea hartzeko tresna gisa, eta, modu horretan, datuak babesteko araudia modu koherenteago, proaktiboago eta efikazago batean aplikatzen laguntzen dutela.

Era berean, azpimarratzen dute antolakundeen barnean figura horien garrantzia sendotu behar dela: horretarako, eginkizunen aldetik, haien independentzia bermatu behar da, baliabide egokiez hornitu behar dira, eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko bidea eman behar zaie, halako moldez non behar bezala bete ahalko dituzten aholkularitza-, ikuskapen- eta prebentzio-eginkizunak.

V. Talde kalteberei lehentasunezko arreta ematea

Funtsezkotzat jotzen da ingurune digitaletan talde kalteberen artean egoerarik larriena dutenak areago babestea.

Bereziki, zenbait jarduketa sustatuko dira, haurrak eta nerabeak babesteko, eta bereziki kalteberak diren beste talde batzuk ere babesteko, hala nola adinekoak edo genero-indarkeriaren biktimak. Arreta berezia jarriko da hezkuntzaren esparruan eta adimen artifiziala oinarri duten sistemen erabileran, arriskuei aurrea hartzeko eta aipatu diren talde horien guztien eskubideak oso-osorik errespetatu daitezela bermatzeko.

VI. Teknologia emergenteen azterketa prospektiboa egitea

Teknologia emergenteen eragina gero eta handiagoa eta azkar-azkarra dela ohartuta, beharrezkotzat jotzen da ikuspegi prospektiboak bultzatzea, teknologia horiek pribatutasunerako eta datu pertsonalen babeserako sor ditzaketen arriskuak identifikatzeko eta aztertzeko eta arrisku horiei aurrea hartzeko.

Beren-beregi, lehentasuna emango zaio teknologia berrien artean erabilera orokorrekoak bilakatu diren horien azterketari eta jarraipenari –teknologia horien artean aipatzekoa da adimen artifiziala–, prebentzioko eta gainbegiratzeko jardueran ahal den goizen bideratzeko.

Ondorio horietarako, adierazpen hau sinatu duten agintaritzen artean informazioa eta ezagutza teknikoak trukatzeko sustatuko da, haien ahalmen proaktiboak sendotzeko; horretarako, orain arte egin den bezala, espezializatorako eta haien guztien artean lana bateratzeko borondatezko formula batzuk bultzatuko dira, ahalmen tekniko espezifikoaren aprobeixamendua oinarri hartuta.

VII. Sektore publikoak eta judizialak konpromisoak hartzea

Sektore publikoak eta agintaritza judizialek herritarren datuen tratamendu egokia egitea berebiziko zutabea da legezketasuna betetzeko. Hori gogoan izanik, adierazpen hau sinatu duten agintaritzek, zeinek bere eskumenen barruan, administrazioaren jardueran pribatutasunaren kultura aplikatzearen alde egingo dute. Horretarako, zenbait irizpide, orientabide eta jardunbide egoki garatuko dituzte, lagungarriak izango direlakoan kudeaketa arduratsua, gardena eta datuen babesaren arau-esparruaren printzipioekin bat datorrena lortzeko; gainera, bide batez, aintzat hartuko da datuak babesteko ordezkariak zeregin oso garrantzitsua dutela eta ezinbestekoak direla, antolakunde publikoetan araudia betetzen dela praktikan ziurtatzeko.

VIII. Agintaritzen jarduketetan efizientzia, lankidetzeta eta koordinazioa hobetzea

Adierazpen hau sinatu duten agintaritzek aitortzen dute ezagutza, esperientziak eta jardunbide egokiak trukitzea eta ikuspegi erkideak eta lankidetzako mekanismo iraunkorrak ezartzea balio handikoa dela, hori guztia gakoa baita barneko prozesuak optimizatzeko, administrazioaren kudeaketan efizientzia hobetzeko eta arau-esparrua modu koherentean aplikatu ahal izateko.

Bereziki, tresnen erabilera partekatuan eta irtenbide teknologiko seguruen garapenean, lankidetzeta sustatuko dute, jarduketak arinago egin ahal izateko eta herritarrek pribatutasunerako duten oinarritzko eskubidea benetan eta modu sendoagoan babesteko; horretarako, jarduera koordinatua bultzatuko da, lagungarria delako interpretazioen koherentziarako eta, araudia aplikatzean, segurtasun juridikorako.

Printzipio horiek aplikatuz eta zabalduz, pertsonen konfiantza sendoagoa izango dute datuak babesteko agintaritzen lanean, eta, zeharo digitalizatua eta etengabe arriskuan dagoen gizarte honetan, pribatutasunaren eta datu-babesaren bermatzaile moduan ikusiko dituzte agintaritzak horiek.